



Ondarroako Boulder Txapelketa

2008koa IV. izango da. Aurrera Mendi Taldearen ekimena da, eskalada sustatzeko asmoarekin eta Ondarroako eskalatzaileei txapelketa bat eskaintzeko. Txapelketa poliki-poliki handitzen joan da eta aurten antolatzaileek maila gehiagok parte hartzeko aukera zabaldu du. Eskudirutan saririk ematen ez duen arren, al den guztientzako sariak zozketatuko dira. Pasa den urtean 24 partehartzeilera heldu ginen eta aurten zenbaki hori gainditzea espero dugu, hainbat herrietako eskalatzaileak gonbidatu ditugu Ondarroan egiten dugun eskaladako txapelketa honetara.

Araudia

1. KATEGORIAK: Lau kategoria izango dira: gizonezkoen elitekoa, emakumezkoen elitekoa, emakumezkoen herrikoa, gizonezkoen herrikoa, 18 urtez beherako gizonezkoena eta 18 urtez beherako emakumezkoena. 15 urtez beherako gizonezkoena eta 15 urtez beherako emakumezkoena. Parte hartzeko adin txikiena: 10 urte.
2. MUNTATUKO DEN BLOKE KOPURUA: 5 bloke muntatuko dira kanporaketa eta kategoria bakoitzeko, eta 3 bloke final eta kategoria bakoitzeko.
3. BLOKEAK EGITEKO DENBORA: Sailkapenean blokeak egiteko 45 minutu utziko dira, eta denbora etenik gabea izango da. Blokeak flash erara egingo dira: norbaitek egin edo erakutsi egingo ditu alde aurretik.
4. SAILKAPEN PROBATIK FINALERA BITARTEKO GUTXIENENKO DENBORA: Sailkapen probatik finalera bitarteko atsedendia, gutxienez, 20 minutu izango da.
5. SAILKAPENERAKO ARAUAK: Lehendabizi, kateatutako bloke kopurua hartuko da kontuan: bloke gehien egin duenak, irabazi du. Berdinketarik izanez gero, egindako «pege» kopurua hartuko da kontuan. Aurreko bi kopuru horietan berdinketa izanez gero, bonusak hartuko dira aintzat.
6. ZER DA BONUSA?: Bonus delakoa helduleku bat da. Azken topa baino lehen jarriko da, lehiakideek puntuak biltzeko aukera izan dezaten. Horrela, azken topera inor iristen ez bada, lehiakideen artean aldeak ezarri ahalko dira.

7. AZKEN TOPA: Azken heldulekuari bi eskuekin heldu behar zaio, bi segundoz baino luzarago edota epaileak «nahikoa» esan arte.
8. ARAUAK: Txapelketan egin beharreko blokeen kopuruan gutxieneko batzuk ezarri dira, baina gutxieneko horiek alda ditzakete lehiaketa bakoitzaren antolatzaileek, beharrezko ikusten badute. Finalean berdinketarik izanez gero, superfinalak egingo dira.
9. IZENA EMATEKO: Izen-ematea egun berean izango da.
10. PUNTUAK ZENBATZEKO MODUA: Parte-hartzaile bakoitzak orri bat eramango du blokez bloke. Bloke bakoitzaren arduradunak hor jarriko dizkio puntuak.
11. AZKEN SAILKAPENAK: Txapelketako kategoria bakoitzeko irabazleek 100 puntu jasoko dituzte; eta hortik behera, hurrengo sailkatuentzat, postu bakoitzeko 5 puntu gutxiago. Lehiaketa batean sailkapen bera lortuz gero, berdindu duten parte-hartzaileek puntu kopuru bera jasoko dute, baina haien postuak kontuan hartuko dira, sailkapenean behera puntuak kentzen jarraitzeko. 2008ko txapelketaren irabazle izango da, kategoria bakoitzean, puntu gehien batzen dituen parte-hartzailea.

Eskerrik asko

Babesleak: Ondarroako udalari.

Laguntzaileak: Kalare deuna kofradia, Esait

Antolatzaileak: Aurrera Mendi Taldea.